

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BASTIDAKO UDALAREN 2018KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den otsailaren 27an Bastidako Udalaren eta Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Tokiko Agentzia erakunde autonomoaren eta Labastida Gestión Municipal SL sozietate publikoaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2018ko ekitaldikoa.

2018ko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz ezin ondoriorik eskuratu izan dugun Udalaren Balantzeko Ibilgetu ez finantzarioaren eta amortizazio pilatuko saldoen gainean. Gainera, Kontu Orokorrak ez ditu jasotzen toki erakunde autonomoaren eta sozietate publikoaren finantza egoerak, jarduerarik ez badute ere, desegin gabe daudenak. Udalak ez du oroitidazkian bere kontuetan eragina izan dezakeen kontingentzia baten berri ematen, norbanako batek jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtso batetik eratorritakoa.

Udalak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du Udalak egoera ekonomiko osasuntsua duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzailetzak jaulkitako txostenaren arabera, 2018an aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren araua bete dela.

Udalak zuzentasunez **bete du** 2018ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren Kontratazioaren atalean (prozedurarik eza energia elektrikoaren hornidura kontratuan).